

JARRAIPEN TXOSTENA

TITULAZIOA	IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA
ID ZENBAKIA	2500585
TITULUA EMATEN DEN ZENTROA	
ATXIKITZEN DEN ZENTROA	HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
UNIBERTSITATEA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
TXOSTENAREN DATA	
JARRAIPENA EGITEN DEN IKASTURTEA	2014-2015

Unibertsitateko ikasketa ofizialak arautzen duen Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren, eta ondorengoko aldaketen, 27.artikuluaren eta Urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuaren 17. Artikuluaren 4. atalean ezarritakoari jarraiki, goian aipatutako unibertsitate titulazio ofizialaren jarraipena egin da.

Jarraipen prozedura hau, 2016ko martxoaren 8an, Unibasq-eko Aholku Batzordeak Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitate Tituluaren jarraipena egiteko onartu zuen protokoloa jarraituz egin da.

Txosten hau, Unibasq-eko Zuzendariak 2015eko apirilaren 1eko eta 2015eko Uztailaren 27ko ebazpenetan izendatutako Tituluak Ebaluatzeko Gizarte eta Lege Zientzietako Batzordeak era kolegiatuan egin du ezarritako irizpide eta jarraibide bakoitzaren gainean egindako balorazioetan oinarrituz. Jarraian bere analisia atxikitzen da.

ANTOLAKUNTZA ETA GARAPENA

Balorazio orokorra:

Matrikulatutako ikasle kopurua tituluaren egiaztapenean eta aldakuntzan jasotakoarekin bat dator. Hori dela eta, gero egindako jarraipenak eta titulazioaren gaineko balioespenak kontuan izanik onarpen kopurua eta irizpideak ikaskuntzaren garapenerako egokiak direla ezartzen da.

Hobekuntza gomendioak:

Ohar gisa, jarraipen txostenaren I.1.5 puntuan- Araudi akademiko ezberdinen ezarpena (iraunkortasuna, errekonozimendua, etab.) hitzez hitz hau esaten da: "Masterraren lehenengo araudi akademikoa 2009-2010 ikasturtean onartu zen ...". Ez dakigu itzulpen edo idazketa akats bat izan den edo graduarekin paralelotasuna badagokio. Dena dela, zuzendu eta argitu beharko litzake.

INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA

TITULUAREN INFORMAZIO OROKORRA

Balorazio orokorra:

Tituluaren ezaugarri orokorrei buruz argitaratutako informazioa, orokorrean, egokia eta eguneratuta dagoela pentsa daiteke.

Ez da argitaratzen informazioa honi buruz:

- Eskola egutegia
- Tituluaren egresatuen lan munduratzea

Hobekuntza gomendioak:

Tituluaren web gunean jarraian agertzen diren puntuei buruzko informazioa gaineratzea:

- eskola egutegia
- kolektibo ezberdinen asetasuna
- Tituluaren egresatuen lan munduratzeari buruzko datuak

Antzemandako jardute zuzenak:

Ikasleen lanak web gunean argitaratuak egotea, bai GBL eta bai proiektuak.

FORMAKUNTZA PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIOA

Balorazio orokorra:

Informazioa argia da eta eskuragarri dago.

Ez da publikatzen jarraian agertzen dien puntuei buruzko informazioa:

- irakasgai guztiak zein hizkuntzatan ematen diren.
- Irakasle gida
- Irakasgaien ordutegia.
- Titulazioan irakasgaiak ematen dituzten irakasleen CV laburtuak.

Hobekuntza gomendioak:

Titulazioaren web gunean jarraian aipatzen den informazioa eranstea:

- irakasgaiak zein hizkuntzatan emango diren (orokorrean euskaraz emango direla zehazten da).
- irakasle gida, irakasgaien programa eta ebaluazio sistemak.
- irakasgaien ordutegia.
- irakasgaia ematen duten irakaslearen CV laburtua.

Antzemandako jardute zuzenak:

GBL-ri buruzko argibide bideoa

KALITATE BERMERAKO SISTEMAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Balorazio orokorra:

Kalitate Bermerako Sistemaren inguruan argitaratutako informazioa, orokorrean, eguneratuta dago eta egokia da. Web gunean kexak, iradokizunak eta erreklamazioak jartzeko atal bat dago.

Hobekuntza gomendioak:

Kexen atala badago ere, ikusgarriago egotea gomendatzen da.

KALITATE BERMERAKO SISTEMA (KBS)

Balorazio orokorra:

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak Kalitate Bermerako Sistema bat du. Bere ezarpena 2014ko azaroan egiaztatu zen. Kalitate Bermerako Sistemak eskumena duen tituluen etengabeko hobekuntza ziklorako lagungarria da. Kalitatearen kultura ezarrita eta maila guztietan sartuta dago zentroan.

Hobekuntza gomendioak:

Web gunean eskuragarri dauden edukiak eguneratzea gomendatzen da. KBS-ren aplikazioarekin zerikusia duen dokumentazioa barne (KBS-ren jarraipen txostenak, emaitzak...)

Antzemandako jardute zuzenak:

Zentroak hartutako konpromisoa eta inplikazio maila, baita KBS-ren jarraipen txostenaren garapena.

LANGILE AKADEMIKOAK**Balorazio orokorra:**

Auto-txostenaren eta adierazleen arabera, Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduak tituluaren egiaztapen memorian jasotako konpromisoekiko eta aukerekiko irakaslearen egokitzapen egokia azaltzen du ikuspuntu ikertzaile, irakaskuntza eta profesionaletik. Honi dagokionez, 29 irakasle dituzte, hauetatik 13 doktore dira (zazpi gizakume eta 6 emakume). Honek portzentaje egokia suposatzen du ikuspegi ikertzailetik. Hala ere, adierazleen arabera bakarrik hiruk daukate irakasleen egiaztapena.

Irakasleen egonkortasunean %55,31ko portzentajea ikusten da. Aurreikusitakoren arabera egokitzat hartzen da, batez ere gradu honen kasuan alorreko profesionalen ekarpenak irakasle elkartuak egotea justifikatzen du. Hala ere, Unibertsitatean titulazioaren egonkortasun erreala lortzeko gutxienez %65a edo %70a ezartzea komeniko litzake.

Hobekuntza gomendioak:

DOCENTIA programa garatzen jarraitzea gomendatzen da irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko.

Irakasleen egiaztapena duten irakasleen kopurua handitu egin behar da.

Ikasle/irakasle ratioa SIU-k ezarritako definizioaren arabera kalkulatu behar da eta aurreragoko jarraipen txostenetan azalduko beharko da, Unibasq-eko Protokoloaren arabera.

Langile akademikoei dagozkien datuen eta adierazleen ekarpena egin beharko da. (Adibidez, jarduera ikertzailearen seiurtekoak, irakaskuntzaren esperientziaren bosturtekoak, etab)

Antzemandako jardute zuzenak:

Auto txostenean aipatzen da irakasleek Unibertsitateak berak proposatutako eguneratzeko irakasle prestakuntza jardueretan parte hartzen dutela.

Lan zamaren banaketa egokirako arautzea egotea.

ADIERAZLEAK**Balorazio orokorra:**

Orokorrean errendimendu, ebaluazio eta uzte adierazleak egokiak dira. Neurri handi batean %90a baino gehiagoko islapenarekin.

Errendimendu tasaren portzentajea 94,19an kokatzen da eta egiaztapen memorian espero dena da. (%90a).
Uzte tasa ikasturtean %4,25koa da eta memorian jasotzen dena %5 da.
Graduazio tasa %75,75koa da eta memorian %75koa jasotzen da.
Arrakasta eta ebaluazio tasak egokia dira.
Ikasleen asetasuna egokia da. Ebaluazioan 7,12an kokatzen da eta titulazioan aurreikusitakoari egokitzen da.

Hobekuntza gomendioak:

Adierazle denak izateko hobekuntza batzuk (ez daude adibidez lan munduratzearekin zerikusia dutenak).
Mugikortasun trukea sustatzea.
Egresatuen asetasun datuen ekarpena egitea.
Eraginkortasun tasan arreta jarri (%94,34koa da eta memorian %98 a ezartzen da).

Antzemandako jardute zuzenak:

Ikasleen errendimendurako eta jarraipenerako lagungarri diren ikasketa metodologia zehatzak antzeman dira.
Gainera, ikasketa emaitzek programaren helburuak asetzen dituzte eta MECES-era egokituta daudela ikusten da.

ALDAKETAK

Balorazio orokorra:

Ez da aldaketarik adierazten.